

BEZEROEKIN ERLAZIOAK

Dokumentu honetan gure bezeroek nola komunikatzen diren azalduko dugu, baita gure enpresaren irudia, bezeroen esperientzia eta gure helburu nagusia ere. Hemen jasoko dituzue gure komunikazio-kanalak, gure balioak eta gure bezeroekin dugun harremana nola kudeatzen dugun.

Gure bezeroekin hurbil eta arduraz arituko gara. Zalantzak edo arazoren bat izanez gero, gure aplikazio edo webgunetik gurekin kontaktuan jartzeko aukera dute. Gure webgunean aholku, laguntza eta informazioa eskuragarri dago. Gainera, posta elektroniko eta sare sozialen bidez ere komunikatuko gara, bezeroen iritziak eta proposamenak entzunez.

Bezeroek gurekin komunikatzeko hainbat kanal dituzte. Webgunea erabiltzen dute produktuei, instalazioari eta erabilerari buruzko informazioa eskuratzeko. Aplikazioa erabiltzen dute eskaerak egiteko eta mantentze-oharrak jasotzeko. Posta elektronikoaren bidez da zalantza zehatz edo pertsonalizatueterako, eta sare sozialak erabiltzen dituzte iritziak partekatzeko, esperientziak kontatzeko eta gure berritasunen berri izateko.

Bezeroek enpresa berritzaile eta arduratsu gisa ikusiko gaituzte. Ez dugu dutxa normal bat saltzen; ura aurrezteko eta ingurumena zaindu eta hobetzeko dutxak eskaintzen ditugu. Horregatik, guk eskaintzen dugun irudia teknologikoa, jasangarria eta kalitatezkoa da.

Gure bezeroek AquaSave praktikoa, eraginkorra eta fidagarria dela esango dute. Gure produktua erabiltzeko erraza dela eta merkatuan erabiltzaileak ura kontrolatzen duen horrelako beste produkturik ez dagoela esango dute. Gainera, gure bezero arreta-zerbitzua azkarra eta lagungarria denez, bezeroek esperientzia positiboa jasoko dute.

Gure helburua da bezeroek gu ingurunea zaintzen laguntzen duen eta etorkizun jasangarriago bat eraikitzen laguntzen duen enpresa gisa ikustea. Honekin batera, dutxen arloan teknologia adimendunaren erreferente bihurtu nahi dugu.